



BRUMA NEGRA

LANBRO BELTZA

Plentzia Beltza Calibre .38

“Lanbro Beltza” IX. Ipuin Lehiaketa Nazioartekoa

Dei-egile: Plentziako Udala

Antolatzaile: Revista Calibre .38

Lanbro Beltza

IX. Ipuin Lehiaketa Nazioartekoa

Euskarazko modalitatea

Epaileen akta

Plentziako Udalak antolatutako *Lanbro Beltza IX*. Ipuin Lehiaketa Nazioartekoko euskarazko modalitatearen epaileek, hau da, Jose Javier Abasolo eta Joseba Lozano jaunek, epaimahaiburua Noemí Pastor andrea delarik, erabaki dute hiru finalista eta irabazle bat nabarmentzea.

Finalistak hauexek dira:

- Hirugarrena: Mari Joxe Azurtza Sorrondegi, donostiarra, “Ganbarako mapa” ipuinagatik.
- Bigarrena: Hegoa Álvarez Zorroza, Morgakoa, “Arotza gau hartan” ipuinagatik.
- Lehen finalista: Ander Varela Crespo, Oñatikoa, “Ez gaitzabela harrapa” ipuinagatik.

Azkenik, *Lanbro Beltza IX*. Nazioarteko Ipuin-Lehiaketako euskarazko modalitatearen irabazlea **Idoia Barrondo** da, Getxokoa, “**Hori**” ipuinagatik.

Plentzian, 2021eko urriaren 16an

Zer non

<i>Hori</i> , Idoia Barrondo	4
<i>Ez gaitzatela harrapa</i> , Ander Varela Crespo	12
<i>Arotza gau hartan</i> , Hegoa Álvarez Zorroza	18
<i>Ganbarako mapa</i> , Mari Joxe Azurza Sorrondegi	33

Hori

Idoia Barrondo

« Zeren heriotzako oren hura, oren ilhuna, nahasia, eta tormentatua da»

Gero

Axular

Iraganak ez du erremediorik, joana joan baita; ez dago hura bihurtzerik, ezta eskuetaratzetik ere. Halako batean, ordea, denboraren iragaite logikoa zoratu egiten da eta iragana eta oraina nahasi egiten dira, geroa desitxuratuz, oroimena hankaz gora jarriz. Hala gertatu omen zitzaion Gratziana Cordebburi etxe hartara joatera premiatu zutenean: lehenaldia brastakoan itzuli zitzaion, dozenaka deabruen indarraz jo zuten joandako orduak oraina.

Pascale Sannaren emaztea eta semea etxeko atariaren aurrean zeuden Gratzianaren zain, elkarri besotik oratuta, aieneka. Figura amorfoa osatzen zutela begitandu zitzaion etorri berriari, ama-semeak bidutzi bat ziruditela gauaren ilunean; beloan begien parean zabaltzen zen zirrikitutik ikusten zituen Gratziana zaharrak, laukizuzen horren barruan zurrunduta baleude bezala. Ilargiak zeharka argiztaturik zegoenez, beldurrezko film baten

eszena ematen zuen denak: kale iluna, ama eta semea, beltzez jantzitako atso tximurra. Gazteak aitaren aurpegiera berdina zuen, Gratzianak ezagutu zuen garaietako Pascalarena, eta hain antzekoak ziren bi gizonak, ezen emakumeak ezin baitzion semeari hotzikararik sentitu gabe begiratu.

Tempio Pausaniako karrika meharretan elkarrekin topo egiten zuten guztietan –astean birritan edo– buru keinuz agurtzen zuten elkar Pascaleren andreak eta Gratzianak. Emakume lirain eta dotoreak senarraren benetako sentimenduez jakingo ote zuen galdetzen zion orduantxe bere buruari Gratzianak, ea jakingo ote zuen Pascale ezkontzera behartu zutela, halabeharrez ezkondu zela harekin. Beste gauza batzuk ere pentsatzen zituen Gratzianak une motz mingots horietan, esaterako, emaztearekin benetan zoriontsu izango ote zen Pascale, emakume eder hari bihotzez maite-maite egingo ote zion. Baina okerrena emakumearentzat senar-emazteak elkarrekin ikustea zen, eta hain mingarria zen, non alargun geratu zenean, *hori* egiteko deitzen ziotenean besterik ez baitzen kaleratzen.

Mandatarari bidez ezagutarazi zion Pascaleren semeak Gratzianari aitaren azken hatsa hur-hurrekoa zela; arren eskatu zion, ordezkariaren ahotik, egin zezala horielakoetan *aggabadòrari*, akabatzaileari, eskatu ohi zitzaiona.

Isilean eta burumakur igaro zen Gratziana emaztearen eta semearen ondotik arrats madarikatu hartan, sorgin itxuraz, heriotzaren belztasunak bortxaturiko janzkera beldurgarrian bildurik. Ez zien agurrik edo begiradarik bota, ezta haiek eskatu ere. Hasperen egin zuen akabatzaileak etxera sartu aurretik, Goikoari egingo zuen *horretarako* adore aparta eske.

Mendien magaletan mordotzen ziren goxo-goxo Tempio Pausaniako harrizko etxeak. Landazabalez, artelatzez eta mahastiez josita zegoen Sardiniako herrixka, eguzkiaren izpi franko hartzen baitzuen. Gratziana eta Pascale nerabeak herriko Fonte Nuova iturrian mintzatu ziren elkarrekin lehen aldiz, aspalditik elkar ezagutzen bazuten ere, neskatoa ura biltzera eta mutikoa freskatzera joan zirenean. Harrezkeroztik, Sannatarren mahasti jorietan elkartzen ziren arrastiro, egun bakar batez ere huts egin gabe.

Gratzianari irri egitean aho ondoan sortzen zitzaion elutxa zuen gogoko Pascalek. Irribarre bitxia zen; neskatzak ez zituen hortzak erakusten, txikitan ebakortzak apurtu zitzaizkion eta horiek ikusgai jartzeak lotsarazten baitzuen. Mutikoari, ordea, ederra iruditzen zitzaion irribarrea, neskatoaren keinu horren edertasunak inguruko gauza guztiak argitzen zituela uste zuen. Pascaleren ibiltzeko modu bitxia zuen gogoko Gratzianak: gorputza aurrerantz botatzen zuen mutikoak, eta bazirudien oinak ez zirela nahiko izango orekari eusteko, laguna behaztopatzeko arrisku larrian zegoela beti.

Hamalau urte zituztela, mahatsondoen artean *ezkondu* ziren, *vernaccia* mahats zuriak lekuko izanda, biok sentitzen zutena benetako amodioa zelakoan. Mutikoak hatz erakusleen muturrak elkartu zituen zubi antzeko bat eratzeko, eta neskatoak goitik behera desegin zuen, atzamar batez. “Behetik gora!”, zuzendu zion Pascalek barreka. Barre eta musu artean burutu zuten elkarrenganako maitasuna. Adartxo berberaz egindako eskumuturrak jarri zizkioten elkarri, amodioaren ikur gisa. “Betiko?”, galdetu zuen Pascalek. “Betiko”, erantzun, Gratzianak. Agertoki zoragarri hartan ezinezkoa zirudien betiko ez izatea. Nori okurrituko zitzaiokeen bestelako amaierarik ipuin xarmangarri horrentzat...

Hamazazpi urte zituztela, arrats apal batean, basoko loreekin egindako sorta bat oparitu zion Pascalek. Ahots dardartiaz eta negar batean “maite zaitut” esan eta burua apaldu zuen. Eta Gratzianak ez zirela inoiz elkarrekin ezkonduko jakin izan zuen orduan.

Mahatsondoak adina sustraituta zegoen usadio *hori* Sardinian. Izan ere, sardiniarrentzat akabatzailea ez zen beste mundukoa, mundutarra baizik, eta gaixoei sendagai edo otoitzik baino heriotza ekartzen bazien ere, hilzorian zeudenen bizia akabatzea ez zen txartzat hartzen. Ezta ontzat ere. Baina konponbide herrikoia zen, ohiturazkoa, itun modukoa, herrixka bakartuetan, ospitaleetatik eta sendagileengandik urrun, ez baitzegoen beste erremediorik. Akabatzailea ezinbestekoa zen gaixoen sufrimenduarekin eta hiltamu luzearekin amaitzeko.

Gizonek uztarritxo bat zizelkatzen zuten, Aste Santuan, zur-zati batean, eta hori etxeko tximinietan jartzen zen, egunen batean, hilzorian egongo zen senidearen burua horretan koka zedin. Usadio itzaltsuaren arabera, beltzez jantzitako akabatzaileak, lekukorik gabe, kolpe batez orno zerbikalak apurtuko zituen, edo bekokian kolpe bat emango zuen zirt edo zart, heriotza berehalakoa izan zedin.

Sannatarren etxera bertaratu aurreko gauean, izuturik eta izerdiz bustita iratzarri zen Gratziana gajoa etzaleku miserablean, bere barrunbeak Pascaleren amaiera gertua igarri balu bezala. Lokamutsa benetan gertatzen ari ez zela ohartu izanak nolabait baretu zuen atsoa, amesgaiztoa benetan gaiztoa baitzen: hil hurren zegoen ezezagun baten bekokia zurezko

mailuaz behin eta berriro jotzen bazuen ere, ez zegoen gaixoa akabatzerik. Sufrimendua eteteko erregutzen zion malurusak, baina Gratzianak ezin, haren pairamena arindu. Noizean behin, kontzientziak ate-joka eskatzen zion bere lekua.

Ez zuen gogoan akabatzaileak zenbat aldiz egin zuen *hori*, gaixo larriei hiltzen urgaztea, mina eta oinazea arintzea, beste aldera lasai bidaiatzen laguntzea. “Sotila da benetan bizitzaren eta heriotzaren arteko mugaldea”, irakatsi zion egiteko ikaragarriak. Zeren eta Gratzianari alargun bihurtu zenean egokitu zitzaion zereginak heriotzaren etsipena baitzeraman berekin etengabe. “Zenbat, Gratziana?”, galdetzen zion noizbait bere buruari. “Hara zer burutazioa, akabatutakoak zenbatzea!”, erantzuten zuen bere kolkorako. Hala ere, *hori* egin zuen lehen aldia bazuen gogoan; lehenengoa izateagatik, bihotzean tinko geratu zitzaiona. Hor zirauen, betiko oroimenaren intzirrituetan txertatuta: eritasunaren kiratsa, erruaren pisua, ezbaia, ziurgabetasuna, begirada erregutzailea. Mutiko bat bestetik ez zen lehenengoa, eta hori bai izan zela gogorra Gratzianarentzat, naturaren kontra jokatzea, gazte bati bizia ematea baino, kentzea. Eta gizajoaren bizitzan zorigaitza agertu ez balitz, biziarekin batera, barre-algarak, lehen musua, ametsak, zorakeriak, itxaropenak, lagunarteko zoriona, amodioa. Mutikoarena egin eta hurrengo egunetan, infernuko suan erre zen, bekatuak pil-pilean kozinatu zituen, hurrengo dohakabea noiz iritsiko zain. Ez zuen inolaz ere *hori* ogibidetzat jotzen, baina erremusinak eta ortuariak eman ohi zizkioten *horren* truke, alargun zahar eta txiro batentzat bizirik irauteko ezinbesteko zirenak.

Akabatzaileak Pascaleren etxera joan behar zuela jakin izan zuenean, bihotz zaharraren taupadek gogoz bortizki jo zioten bularra. Gorputza azkarki igurtzi zuen treskan, eta, zein guratsua den oroimena..., Pascalerekin gozatutako bizipenak gogora ekarri zituen: udako arrasti beroak, erreko bainuak, mahastietako haize atsegina, musuen ahogozoa. Eta oroitzapenak hain urrun zeudenez, zalantzan jarri zuen noizbait benetan gertatu ote ziren. Motots zuria arretaz txukundu zuen koketeria keinu batez, burutik oinetaraino beltzez jantziko bazen ere, aurpegia – begiak izan ezik– belo beltz batez estaliko bazuen ere.

Atzean atea zabalik eta Pascaleren emaztea eta semea hunkiturik utzi eta etxera sartu zen. Orduan ohartu zen ez zela inoiz etxe horren barruan egon. Gaixoaren logelaren atara iritsi eta berehala, hain ezagun zuen heriotzaren hoztasun garratza sumatu zuen, baita haren kiratsa koldarra ere. Ohi bezala, hormetan ez zegoen gurutzefika edo irudi erlijiosorik, bera iritsi aurretik senideek hormatik kendu baitzituzten, “arima eta gorputza errazago bereiz zitezten”, zioten herritarrek, baina Gratzianak bazekien lekukorik –mundutarrak eta zerutarrak– egon ez zedin egiten zela, berak egingo zuena ez Jainkoak ez gizakiek ikus ez zezaten. Baina oheburu gaineko gurutze ikusezinaren ingeradak bazirauen, gela horretan gertatuko zena gertatuko zela kristau onen etxea zela gogorarazteko edo. Hormako marka horretan jarri zuen begirada Gratzianak, gizonari begiratzeko kemenaren bila. Pascaleren gauzak –armazoi ederreko betaurreko batzuk eta montra bat– ez zituzten mesanotxetik kendu; beharbada, ohean zetzan gorputza noizbait gizaki ahalduna izan zela jasota gera zedin.

Begiak itxita zituen gaixoak, eta ahotik sisipasa irteten zitzaion, hizkuntza arrotz batez mintzo balitz legez. Paradoxikoa gertatu zitzaion atsoari une

horretan plazerra, ia poza, sentitzea, Pascale hain gertu izateagatiko plazerra hilzorian ikusteagatiko mina baino handiagoa baitzen. Begiak ireki zituen gaixoak. Beloa kendu eta aurpegi atsotua estalgabetu zuen Gratzianak. Ebakortz apurtuak erakutsi zituen goibelki irri egitean, eta maitearen izena esan zuen ahapeka, “Pascale”. Gizonak ez zuen gorputzaren jarrera mugitu, begiekin mintzatu zitzaion emakumeari. Etsipenez hainbat urtez bizi ostean, etsipenez hil besterik ez zegokiola ulertu zuen, emakumea ikustean zertara etorri zitzaion jakin izan zuen. Irribarre antzua behartu zuen gizajoak, muzinka, besoak goratzen saiatzean. Ohe azpian, pixontziaren ondoan, uztarria zegoen, Gratzianak bisitaren zorigabeko xedea ez zezan ahantz.

Orduantxe hain justu norbait gela horretara sartu balitz, agerraldi izugarri hau ikusiko zukeen: hilzorian zegoen agure bat, larruazal zurbil-zurbilduna, gorputz zurrunduna, eta goitik behera beltzez estalitako mamu bat, gizonari zabuka gerturatzen, esku batean zurezko mailu bat zeramala. Benetan beldurgarria... Baina atsoa eta agurea zerk lotzen zituen jakin izan balu behari inpartzialak, horren izua erruki bihurko zatekeen. Jakin izan balu bi gorputz zahar horiek, garai urrun batean gazte ederrak zirenean, mahastien artean ezkutuka elkar maitatu zutela. Mutikoa ardogile dirutsuen familia baten alaba bakarrarekin ezkondu zutela, bi leinuen mahastiek bat egin zezaten. Tempio Pausanian onartezina zela Sannatar mahastizainen seme zaharraren eta Cordebbutar xumeen alaba gaztearen arteko amodioa.

Ustekabeko begiralea arima uzkuriturik aterako zatekeen gela hartatik, Gratzianak *hori* maiteari egingo ziola jakin izan balu.

Gaztetan hainbatetan laztandutako burua emeki altxatu zuen Gratzianak, doinuren bat xuxurlatzen zuen bitartean. Uztarritxoa burko azpian jarri eta garezurra bertara egokitu zuen. Arnas hartu zuen sakon, atsekabeturik, eta karraska ikaragarri batek burrumba egin zuen gelaren ilunantzean, atsoak kolpea oraindik eman ez bazuen ere. Bere bihotza bitan zatitu izanak zarata egin zuela ohartu zen. Maitearen azken begiradari eutsi zion, mahasti eguzkitsu batera joateko asmoz, oraindik zorigaitzak iragarri ez zituen ilargi gorrixka baten azpira. Ezpainari hozka egin zion, masailari min eman. Odolaren zapore melenga nabaritu zuen.

Pascale gizajoa agontzen saiatu zen, emakumearen izena esaten, baina ezin biak. Gratzianak adartxo beraz egindako eskumutur bat jarri zion, esku dardartiarekin, eta “Betiko” esan. Beste eskuarekin, ezkerrekoarekin, olibondoaren zurezko mailua, T formako *mazzolua*, altxatu eta maitearen bekokia jo zuen irmo.

Ez gaitzatela harrapa

Ander Varela Crespo

Labana lurretik altxa eta harraskan, uraren azpian, etzan du segundo batzuez. Gogor jo dio ur txorrotadak, eta horrek, aurretik zikindutakoa desagertzea ahalbidetu du. Haragi zatitxoak askatu zaizkio, eta zulotik behera desagertu dira. Gerri inguruan kiribildutako trapu zaharra pasa dio ostean, eta arrastorik ez zela ikusita, bere txokoan gorde du, kaxoian.

Sukaldetik irten eta logelarantz abiatu da. Atean iltzatu ditu hankak, sarrera zeharkatu gabe. Bertatik behatu dezake gorpua, ohe gainean etzanda, luze-luze eginda. Behe aldetik hatzamar puntak irteten zaizkio, eta goi aldetik burua, sudurretik gora. Begiak ikuskatzen zaizkio, itxita biak. Aztoratutako ile apurrek kopeta estaltzen diote, ertz batzuek bekainak ukituz. Iragan asteko ile-apaindegian emandako kolore argiek bertan diraute oraindik ere.

Lehen pausoa ematearekin bat barruratu da lau hormen artean, emakumearen gaineko izarara, zuzenean. Behe aldetik luzatu dio zertxobait, bi eskuekin tira eginez. Orain, oinak estilirik daude, epeletan, eta ahoa bistan. Lepo inguruan kokatu zaio tapakia. Aurpegi osoa behatu dakioke. Masailean musu eman dio, tentu handiz, eta agurtu egin zaio.

Jarraian, burua goratu eta ohe bizkarreko paretan finkatu du begirada. Hormatik egurrezko gurutze handi bat dago zintzilik, erdigunean jaungoikoa duela, besoak zabalik, eta hanka bat bestearen gainean. Gorputz adar bakoitzean iltze bana haragia zeharkatuz.

Atzeraka pauso txikiak emanik urrundu da gunetik, orpoarekin atea kolpatu duen arte. Arretaz behatu du azkenekoz, eta logelako argiak itzaltu ditu. Iluntasunak gorpua menpe hartu du berehala, harena izango balitz bezala. Ate inguruan biratu eta korridorea gurutzatu ostean, sukaldean sartu da, berriz ere. Kasu honetan, lurreko izkina batean aurretik kokatutako saku handia hartzeko helburuz. Altxa duen une berean tenkatu zaizkio besoko giharrak, baita zainak ere. Pisutsua oso, ozta-ozta beso biek hartu beharrekoa.

Isiltasuna nagusi etxe zaharkituan. Atarirantz abiatu da, sakua eskuan daramala. Nola edo hala eskularruak jantzi ditu, hortzen laguntzarekin. Gogor estutu ditu. Kontu handiz ireki du etxeke atea, eta atariko argia piztu gabe, inguruan inor ez dabilela frogatu du. Hutsik kale ilunak, ezta zarata arrastorik ere. Bare da karrika. Katuren baten hotsa entzun berri du, ez ordea arduratzeko adina. Aldeetara begiratu ostean, lehendabiziko pausoa eman du. Kanean da. Boten mugimenduek istilu apur bat sortarazi dute, eta ea azkarregi ote doan galdetu dio bere buruari. Martxa lausotu du, zalaparta ekiditu nahian.

Enparantzara heltzean, erdi-erditik zeharkatu baino, nahiago izan du ertz batetik gurutzatzea, arkupeetan barrena. Lortu du, nekez, bihotza irtetear duen horretan. Kale izkinara ailegatu da, eta alde batetik bestera igaro aurretik, birrikak arnastu ditu. Beteak ditu orain. Ostera, konturatu da, zerbaitetaz. Sakua eusten duen eskuak haren atentzioa behartu du. Izan ere,

umela nabaritu du, eskularruaren azpitik, bustita egongo balitz bezala. Pisua lurrean kokatu, eta, askatu bezain pronto, eskua aurpegiratu du, begien parean. Ilun egon arren, ziztu-bizian ohartu da; likido likatsu batez blai da, kolore gorrizka duena. Urduritzen hasia da, eta horren ondorio, lehendabiziko izerdi tantek agerraldia egin dute garondotik behera, bizkar erdialdea beheratuz. Sakura desbideratu du orain begirada, eta hura ere goitik behera gorri dagoela jabetu da. Atzera begiratu, eta aurretik egindako ibilbideak ere tanta gorrizkak dituela lurzoruan ohartu da. Bide guztian zehar utzi du arrastoa, hasieratik ordura arte.

Beranduegi da atzera egiteko. Beranduegi guztia garbitzeko. Beranduegi arrastorik ez uzteko. Norbaitek ikusiko balu, akabo. Susmagarria izango litzateke.

Atzera begiratu ez, eta aurrera egitea besterik ez dago. Ordularia kontran du, eta bertan geldi egoteak ez dio mesederik egiten. Beraz, sakua soinean hartu eta martxa segitu du, begirada bidetik aldendu gabe. Orain, korrika.

Bizkor doa. Bota pisutsuek mugimendu erosoak oztopatzen dioten arren, oinkada polita darama. Galtza bakeroak iztondotik tenkatzen hasiak dira, apurtzear egongo balira bezala. Ez du axola, korrika jarraitu beharra du.

Bat-batean, beste zerbaitek arreta desbideratu du. Eta zer ote zen jabetu aurretik, badaezpada, bi autoren artean makurtu da. Perspektiba bikaina du hortik, nahi gabe aurkitu duena. Bi gazte ikusi ditzake, haren tankera berean. Korrika, alderik alde, gune zabalak ekidituz. Lorategi batean sartu dira, eta sastraka artera egin dute salto. Atzetik, auto batek egin die agerraldia, soinean argi urdinak dituela. Distantziara behatu daiteke, aldiz, metro eskas batzuetara izan arte ez da konturatu. Arnasa baretu du,

zalaparta ekiditu asmoz. Ez dabilta bere bila. Itxuraz, bi gazte horien atzetik dabilta, eta une batez, begi bistatik ihes egin diete. Ordea, bera ikusiz gero ere akabo.

Aldendu dira, eta argi distiratsuak desagertzearekin bat hasi da korrika berriz ere. Bi gazteek ere gauza bera egin dute. Elkar gurutzatu dira, ostera, begiradak iltzatuak izanagatik ere, nork bere bidea jarraitu du. Ez da galderarik izan, ezta azalpenak emateko beharrik somatu ere.

Pertsiana hotsak goi aldetik. Batzuk gora, behera beste batzuk. Zenbait argi ere piztu berri dira. Akaso sukaldekoak, edota egongelakoak. Begiradak somatzen ditu leihoen bestalde, zuzenean bizkar aldean iltzatzen zaizkiolarik. Kamerak izango balira bezala; “Gran Hermano” erraldoi bat.

Errepidea bizkar inguruan utzi eta dozenaka koska ditu mutur parean. Eskailera hauek goratuta nahikoa, goialdean aurkitzen baita haren babeslekua. Binaka ekin dio. Aldiz, azkar kikildu da, arnasestua agertu bezain laster. Banan-banan jarraitu du. Biziago, baina motelago. Sakua bular aldera gerturatu du, nolabait, eskuaren ezintasuna ikusi ondoren.

Goia jo du, metro eskas batzuk aurrera eta bertan da; etxeko atari parean. Belauna paretaren aurka tolestu, eta sakua honen gainean kokatu eta gero, aske utzitako eskuarekin giltzak atera ditu poltsikotik. Hau barruratu, biratu eta oin puntarekin emandako kolpetxo bitartez atzeratu du atea. Behin barruan, lasai da, eta hala erakutsi dute haren bihotz taupadek. Baita birikek ere. Igogailua itxaron, presarik gabe, eta bigarren solairura hondoratu du hatza. Beste giltza potoloago batekin orain, eta etxe barruan sartu da.

–Aizu, Jakes, egunen batean harrapatuko zaituzte! –entzun da egongelatik.

–Arrazoi duzu, ama. Gaur ere libratu egin naiz, justu-justu –erantzun dio semeak.

–Hamarrak eta hamar dira. Hamar minutugatik merezi dizu hala ibiltzeak?

–sofan etzanda, egongelako ordularia seinalatuz.

–Zein momentutan ezarriko zuten etxeratze agindu madarikatu hau...

–Eta saku hori? Jakes! Lurzorua zikintzen zabilta! –bizkarra goratu du sofatik, errieta egin nahian.

–Amonak eman dit, okela gisatua tomatearekin. Antza bidetik tuperra ireki zait, eta guztia zikindu naiz, goitik behera.

–Nola daukazun jertsea... eskularruak ere... Ai ama! Segi berehala sukaldera eta utz ezazu mahai gainean, motel!

Amak atzetik jarraitu du, bidetik utzitako tanta arrastoak saltoka ekidituz.

–Azkenengo aldia halako gauzak ekartzen ditudala, gero ez du inork jaten eta... –Jakesek, eskuak garbitzen dituen heinean. Eskularruak eta jertsea erantsi ditu eta garbiketa kutxara jaurti ere.

–Ilusioa egiten dio amonari, badakizu nolakoa den...

–Bai, baina...

–Portzierto, nola ikusi duzu?

–Ondo, egia esan. Afaltzen lo egiteko pilulak eman dizkiot, urdinak ezta?

–Bai.

–Eta berehala sartu dut ohean. Agurtzeko astirik ere ez dut izan. Sukaldea jaso bitarte hartu dio loak. Han utzi dut.

–Ondo da. Bihar niri tokatzen zait esnatzea, ea zer moduz dagoen. Eta zu,

joan zaitez ziztu-bizian dutxara! Aurpegian eta guzti duzu tomatea eta!

Arotza gau hartan

Hegoa Álvarez Zorroza

Hilleko gaurik ilunean, behe lainoak erdizka estali zuen arotzak begi bistan zekarrena. Kaleen makurdurak, gernu usaina barreiatu zuen auzo osotik, eta arotzak berak, muzin egin zion arnasa sakon hartzeari, herrenka, *Urbeltz* auzoan azaldu ostean. Arotzak, esku artean zekarrena panazko jake azpian ezkutatu zuen berehala, inork ikusi, entzun edo usaindu ez zezan. Ene! Gure herriko arotza! Ez zen tipo makala bera... baina herria ere ez zen makala, ez Jauna. Hiru mandatarik bideratzen zuten gure bailara: Gizonen Jaunak, Jainkoaren Zerbitzariak eta Herriko Buruak. Bost mendik inguratzen zuten harrizko herrixka. Landa, baso trinkoa eta otsoak nonahi. Gizon ugari eta emakume gutxi. Heldu gehiegi eta haurren soinu urri. Herri zabala bihotzgabe larregirentzat. Asunez eta aihen-belarrez jositako herriak, ez zuen etorkizun oparorik begi bistan. Zori txarrez zigortu zituen Jainkoak bertako jaunak, betierekotz galduak ziren andere gabeko gizonen lurran.

Utzi dezagun, ordea, herriaren inguruko aburua, hala itundu zutenei. Gure ekimena, elezaharrek indar handia zuteneko garaiko gau batean gertatu zena helaraztea da. Hitzok atsekabetu ez zaitzaten ohartaraziko zaituztet: “Jainkoak emona, Jainkoak daroa”.

Arotzak, Erramun zuen izena. Bere izenak ez zuen hainbeteko garrantzirik. Izenek beti dute garrantzia, baina bereak ez, ordea.

–Jainkoak ez ninduan ondo sortu...Jainkoak ez ninduan ondo sortu. Ez, ni ez. Nik ezin juat. Berak bajakik hori. Berak bajakik –errepikatu zuen behin eta berriz bere zahatoek lurzoruan egiten zuten hotsa besterik entzuten ez zela. Alboetara begiratu eta epeltasun bila edo, *Urbeltz* auzoko “Esne-belar” tabernan sartu zen bederatziak pasatsu. Taberna, lur azpiko zulo beltz bat zen. Horrek gernu usaina ez, baina garagardo eta janari ustelduaren hatsa bai. Arotzak usaimen fina zuen, amak herentzian emana, eta haren moduan, sufritu egin behar izaten zituen munduko usainak.

Tabernako izkinarik ezkutuenean, barra aurrean jesarri zen. Jaka azpian gordea zuena ondo estali eta zigarro purua, kutxatxoatik atera zuen ezpainen artean kokatzeko.

–Joder –esan zuen ahopeka pospoloa piztu eta puru txikia errez. – Zer ostia egin bihar juat orain?

–Arotza! Hamen barriro? Bizi ona jauke hik!

–Bizi ona edo latza, bakarrik egin bihar bajuat, hobe mozkorran artien.

–Nik poltsa betie ikusiz gero, gure beste ohitu ahal haiz hamengora.

–Sosak ekarri jituat, hago ixilik eta ekarri zerbezie. –Tabernaria beragandik urrundu zenean, ile-matazatik eskua pasatu eta mihiatz busti zituen ezpainak, zetorrenaz prestatu nahian. Orduan, oharkabeko mugimendu gisa, jaka azpikoa bere gorputzaren kontra estutu zuen.

Tabernariak pinta osoa jarri zion musturren aurrean, eta arotzak, lehen tragua hartu zuen.

–Esaidak, Telmo, aditu ahal jok barririk zulo hontan? –Tabernariak mesfidantzaz begiratu zion hura entzutean.

–Norengandik izan bihar dittuk barrixek? –Galdetu zuen kontu handiz. Erramunek ondo pentsatu zuen erantzuna.

–Jaun onenengandik. –Telmok, irribarre egin eta burua makurtu zuen arotzaren begi parera.

–Badakik, Erramun, Jainkoak ez juala gupidarik euki bailara hontan. – Hura esan, eta tabernariak, burua albo batera biratu eta txistua bota zuen lurrera– Beste lanen baten bila habil ala, arotza? Diru falta jok?

–Ez. Berri bille beserik ez. Berri on bille.

–Berri onak ez, baina samurrek bai. Hilik topatu juek andra gazte bat basoan. Gaztie, Erramun! Hogeita bostetik gora ez. Hogeita bostetik gora ez! Begi azulak huela aditu juat. Ez jakixek nor huan, baina otsoek janda topatu juek. Partida bat egiteko dana atonduten jabizak, horrek piztiak akabatuteko. Emakume barik itxiko juek azkenien herrie... –penatu zen tabernaria burua astinduz. Guztiek zekiten herria ez zela anderez gutxitu otsoen erruz. Jainkoangandiko zigorra izan zen. Orain gutxi batzuk besterik ez ziren gelditzen eta zaila izaten zen baten bat jaun artean ikustea.

–Telmo, nahigaberik ez. Non jok giro apala herrian gau hontan. – Orduantxe, golpe sendo baten ostean, arotzak ozen entzun zuen bere izena tabernan.

–Erramun! Hamen hago eta! Hire bila aritu nok, putasemie! Hire etxeko atso zaharrak berrogeita hamar pezeta zor jostenaz!

–Amama zendu zonan. Hoa popatik hartzera!

–Gezurre! Ikusi juek! Hortik galdute jabin, burutik jota. Zorrak pagatu egin bihar dittuk! –mozkorra dinbili-danbala hurbildu zen arotzarengana, ahalik eta arriskutsuen agertu guran. Tamalez, mozkorrek ez dute nahi beste erakusten eta ahuleziak besterik ez dituzte bistaratzen.- Hire etxeko zorrak pagatu egin bihar dittuk, kabroie!

Erramunek bere eserlekutik ikusi zuen gizona hurreratzen. Mantso, balantzaka eta grazi gutxirekin. Estropezu egin, lurrera jausi eta berriz jaikita, arotzaren parera heldu zenean, begirada nekez zentratu zion. Gixajoak besoa luzatu eta arotzari ukabikada bat ematen saiatu zen. Honek, mugimendu bakarrez, ukabilkada sahiestu eta lepotik estutu zuen. Atzamarren artean zuen puru txikia egoki hartu, eta pizturik zuen aldea gizonaren ezkerreko begian tinkatu zion gogor. Mozkorra berehala hasi zen aieneka lurrean. Ez zen bertako inor eserlekutik altxatu. Bakoitza bere arazoez arduratu behar da. Ondo jakina zen ez zela “musturrik” sartu behar inoren kontuetan.

–Alde egin bihar jok hamendik, arotza. Apaltasune elizan jak, hoa bertara.

–Telmok argi utzi zion gau hartan ez zela ongi etorria tabernan.

–Zerri zikinek besterik ez jaukezau herri hontan –izan ziren Erramunen azken hitzak.

Hotzak berriro jo zuen aurrez aurre, baina Ibilkune okerraz aurrera jarraitu zuen kalean behera. Okerra bai, baina ez koitadua. Ezin zen inor koitadu agertu. Jake azpikoari ondo heldu eta elizako ateetararte heldu zen. Egurrezko ate erraldoien eskutoki bat oratu eta aurrera bultzatu zuen barrura sartzeko. Elizak intsentsu eta margo usaina zuen. Erramunek pasilloa zeharkatu, Kristoren aurrean makurtu eta aitarena egin zuen

sentimendu handiz. Luzea. Hiru zeinatukoa. Berriro altxatzean, hasierako bankuetariko baten jesarri zen, eta horrek, jake azpikoak zuen pisua hanketan kokatzen lagundu zion. Arnasa sakon hartu eta begiak itxi zituen.

–Seme, zer zabiz gau hontan Jaunaren etxien? Konfesatzera zatoz? – Arotzak berehala ireki zituen begiak Jaunaren Zerbitzariaren ahotsa entzutean. Ahots ederra zuen, goxoa. Behar zuena topatu zuen bertan. Hura zen lekua, bai, hura zen jauna.

–Aitte ona, bai, berori bisitatzera etorri naz. –Erantzun zion errespetuz.

–Zer bihar dozu nigandik?

–Berorren laguntza bihar dot, Aitte ona. Ez dakitt zer egin.

–Zein da zure ardurie? Zabalik daukaz eskuek zuretzat, seme.

–Ez da erraza.

–Salbu zagoz hamen. Kontau, zure bille dabiz?

–Bai, baten bat badabil.

–Zure amama zaharran bille dabizela entzun dot. Ez da zugaz bizi?

–Ez.

–Zuen etxeke andrie da, zure ardurapien da, etxien babestute egon bihar da.

–Zaharra da, alde egin gure zauen bere kabuz. Mosu bat emon eta ez dot barrero ikusi...

–EZ! EZ! Seme. –Apaiza bere aurrean makurtu eta zentimetro gutxitara finko begiratu zion begietara, oldarkor, azala gorrituta. –Andrak munta handikoak direz. Jaunakaz egon bihar direz. Jaunak daukee harek jagoteko eskumena. Halan izan bihar da herrien. –Gure Erramun arnasestuka ez

zuen argi pentsatzeko gaitasunik. Eta nahasmen hartan, urduri, izan behar zuenarekin bat ez zetorren galdera bakarra egitea otu zitzaion.

–Zergaittik? –“Zergaittik” izan zen ahoskatzea erabaki zuen hitza. Duda barik, galdera katramilatua.

–Zure berbek harritzen nabe, seme. Bakizu halan dala. Jainkoak halan gura izan zauela. Jaunaren irudia gordetan dogu jaunok. Geu gara horren jagoleak. Lurrari jagoleak. Orduen, lurrari dauena geurie bada, zelan ez dogu azken hatsa eman arte guretuko? –Orduantxe jakin zuen arotzak hura ez zela topatzen zebilena. Ez zela behar zuen jauna.

–Ez dakitt, Aitte. Jainkoak ni ez nau ondo sortu. -jaitsi zuen begirada Erramunek. Arotzak ez zuen mundua ulertzen. Berak hori bazekien.

–Zoaz amaman bille, eta ekarrizu gure artera. Bizi ona dauke hamen.

Gizonak esanekoa egin zuen. Bankutik altxatu eta elizatik kanpora irten zen jakea ondo estututa.

Nora joan jakin gabe, herriari bueltaka aritu zen, bertako kale meharretatik, inoren arreta erakartzeko intentziorik gabe. Harresiko ipar-ekialdeko dorrean pausatu zen momentu batez. Jakeko botoiak zabaldu eta barrura begiratu zuen. Begitarte iluna jarri zitzaion berriz ere, berdina egiten zuen bakoitzean jartzen zitzaion moduan.

–Zein jaun bihar juat nik?

Herrian bazen buru bat. Herriko Burua. Ez gizonen jauna, baina bai herriko ordezkaria, zaindaria. Berak lagunduko zion.

Buruaren etxea herriko bihotzean zegoen, lau puntuk batzen zituen plazan. Ixilean joan beharko zen, zarata handirik egin gabe. Horretan trebatua zen

judanik.

Plazako iluntasunean dantzari diartzuten farolen argi txikiek betiko moduan. Ez zen plaza handia, ez zen plaza borobila, ezta jendea pozik batzen zituen plaza ere. Udaletxea eta etxe batzuk besterik ez zituen. Eta bertako etxe handienean, Herriko Burua bizi zen. Baina bere etxeko atean bi gizon zeuden, Burua jagoten zuten bi morroi.

–Nora hoa, arotza? –Galdetu zion bibotedunak. Orbain batek zeharkatzen zion aurpegia. Txikitan egin zioten eta horrek ez zion itxura adiskidetsurik izateko gogorik eman.

–Hire nagusia ikustera najatok.

–Zetako? Zergaittik hain larri nagusia ikusteko? –Galdetu zion bizardunak. Hura ederra zen. Herriko ederrena eta handiena askoren aburuz. Baina fama txarra zuen. Handiena zelakoan, inoren gorputza hartu eta bere nahierara erabiltzen zuen. Zimurrak zituen, odea. Laster, gazteago batek moztuko zion lepoa.

–Zerbaitt juat berantzat.

–Eta zer dok? –Galdetu zion orduan bibotedunak.

–Hori berari esango jotsat. –Bizarduna Erramunengana hurbildu zen sugea legez. Sugea legez mihia atera eta ezpainak busti zituen. Ez zen seinale ona. Arotzak hogeita hamasei urtetik gora ez zituen. Hori ere ez zen ona.

–Zer jaukek berantzat?

–Ezin neikek esan. Esaten bajuat, Herriko Burua hasarratuko dok. Jainkoa hasarratuko dok be... –erantsi zuen begirada jaitsiz.

–Jainkoa? Zer jaukek zer ikusirik Jainkoak. –Morroiek harrituta begiratu

zioten.

–Jainkoan nahie dok.

–Jainkoan nahie? Adarrik ez jo, arotza! Esan egixe! Esateko, ostia! – Erramunek nahikoa zuen. Ez zuen denbora askorik bere ekimena burutzeko. Jaun haiek ez ziren duinak. Istant batean, Erramunek labana zorrotz bat atera zuen ezkutuko sakeletik. Gaueko argi-jokoak mantu zirela, eskua luzatu eta lepoa moztu zion bizardunari golpe bakar batez. Bibotedunak ez zuen erantzuteko astirik izan. Lambroa balitz, hareri aurre egin ezinik, arotzak belarri azpian sastatu zion labana bigarren jaunari. Odolak kolore ilunez zikindu zizkien zama eta paparra. Odolaren biskositateak hipnotizatu egiten zuen beti. Lurrina gustokoa zuen. Eskuak zikintzea ez hainbeste, ordea.

“Norberak jaroan bizixe pagatu egin bihar dok beti” –jakinazi zien lurrean hiltzear zeudenei. Itotzeko zorian, jaunek ezin izan zuten ezer erantzun. Arrastaka, lehenengo bat, eta gero bestea, plaza zeharkatzen zuen erre kara jaurti zituen bi gizonen gorpuak, urak eraman zitzaizkien.

Arotzak Herriko Bururaren etxeko atea zabaldu eta hura zeharkatu zuen. Etxeak itxi usaina zuen. Handia baina aireztatu gabea. Kanpotarrak ez ziren normalean bertaratzen, etxe hark ez zuelako inoren gogoia pizten. Sarreran zeuden eskailerak igo eta argia pizturik zuen gelarantza abiatu zen. Zarata bitxiak entzun zituen erdi irekita zegoen atearen beste aldetik. Bizi gabeko etxe hartan, zaratak, bizi handikoak ziren. Jaunaren orroak, bestelako intziri batzuen gainetik entzuten ziren.

Erramunek osorik zabaldu zuen ate hura, barruan zebilena aditzeko. Jauna, larrugorritan, beste persona baten gainean aurkitu zuen. Ohea, gizon hark

egiten zituen estokada bakoitzaren erritmora astintzen zen, eta intziriek, haiengandik gertu, negar aieneak ziruditen.

Jaunaren gorputzaren azpian zegoen anderea, andere zaharra zen. Ile urdindun atso konkortua. Hozkada-markak zituen gorputz osoan zehar eta begiak gogor itxita.

“Andrari min egiten jotsene?” galdetu zion arotzak bere buruari.

–Andrari min egiten dotse? –galdetu zion orduan ozen jaunari. Herriko Buruak buelta eman berehala eta beldurturik begiratu zion Erramuni. Hura zela konturatzean, haserre gorrian jarri zen.

–Akabu santue!! Zer ostia egiten jok hamen, arotza? –Herriko Burua ohetik jaiki eta berarengana hurbildu zen bortizki. Atzean zegoen amakumea negarrez hasi zen orduan.

–Zoaz zure etxera, andrie. Gero joango naz ni. –Emakume zaharra, nekatuta, astiro altxatu zen ohe hartatik. Bere soinekoa jaso eta atetik irten zen.

–Ez nakixen andrie zendunik, jauna.

–Andrie? Ez don nire andrie. Horrek mutilek bakarrik jakiñ emoten. Beste hiru jauni semiek emon jotsenazan, baina danak hil jakonazan. Bost seme lur azpixon.

–Zugaz auen. Zure azpixon.

–Ganien, azpixon, leku danatan gure izanez gero. Ez jok inoz aditu zelan egiten juaun gizonok larrutan? –Erramunek burumakur, begirada aldendu zion Herriko Buruari. Horretaz konturatzean, barre algaraka hasi zen etxeke jauna. -Ama Birjina baino garbiagoa dok gure herriko arotza, antza

danez! Halako andre batek berotu egitten gaittuk. Zaharra don, baina bero mantentzen josten ohea.

–Min egiten jotsenan. –errepikatu zuen arotzak, bere pentsamenduetan murgilduta.

–Zer?

–Min.

–Ta? Normala dok.

–Negarrez joan don. –Erramun ez zen, berez, jaunarekin hizketan ari. Egia hura bereganatzen ari zen.

–Arotza...

–Zaharra don baina ez don jaunen andrie. “Berotu egitten gaittuk”...

–Arotza!! Aritu! Zelan sartu haiz hona barrure? Morroiek eduki jittuat nik ate aurrien. Zelan sartu haiz barrure? -Baina arotzak ez zuen erantzuten. – Arotza!!

Orduantxe, lehengo legez, labana atera eta hiru zaztakada eman zizkion urdailean. Laugarrena, bihotzaren erdian-erdian. Herriko Buruak begiak zabal-zabalik begiratu zion, gertatutakoa sinetsi ezinik. Lurrera erori zen beharrez eta eskua bihotzaren kontra, bere logelako zoru hotzean hil zen.

Gure Erramun, etxe hartatik irtetzean, basora abiatu zen, beste nora joan ez zekiela. Mendabeltza zeharkatu, iratzeak ukitu eta haritz baten azpian jesarri zen atsedean hartzeko, eta minutu gutxira, lo gelditu zen bertan.

Loaren magalak emandako denbora-tarte horretan, arotzak amestu egin zuen. Ametsean, bere etxean zegoen, ume koskor bat zela oraindik. Ametsean ama bizirik zegoen, eta amamak bere alaba bakarra mimatu

egiten zuen. Jainkoak alaba bat eman zion, eta alaba horrek hiru seme izan zituen. Erramun, hiruretatik gazteena zen. Baina bost urte zituela, laugarren umeaz gelditu zen ama haurdun. Bere ametsa, ama erditu zenekoa izan zen. Euri zaparradak lehioak astintzen zituen, eta ama, garrasika zebilen minak jota. Amamak, ahal zuen guztia egin arren, ez zen nahikoa izan. Odol ugari galtzen zebilen. Jainkoaren naira, amak, alaba txiki bat munduratu zuen. Etxeko hurrengo belaunaldiko argi izpia. Ama, tamalez, ez zen bizirik irten erditze hartatik. Amamak jaio berria eskuetan zuela joan zen ama, odol, izerdi eta zapi busti artean. Erramunek dena ikusi zuen ateko zirrikitutik. Alaba txikia hiru egunen buruan hil zen baita, eta amama, egunetik egunera, zoratzen joan zen jaunen artean. Jaunen etxeetan, jaunen dendetan, jaunen plazan, jaunen herrian.

Arotza dardara batean esnatu zen. Orduantxe jakin zuen noren bila joan behar zen. Ez zuen jaunik behar, anderea behar zuen. Amama behar zuen.

Amama aspalditik desagertuta zegoen, inork aurkitu ez zezan, baina ala ere, arotzak ondo zekien non pasatzen zituen bere gauak askotan. Herritik kilometro batzuetara, tren-geltoki zahar abandonatu bat zegoen, eta askok madarikatuta zegoela esaten zutenez, ez zen inor hara hurbiltzen. Tren-geltokia igokariz apaindua zegoela esan daiteke, itxura ederra ematen zielako landareek, hautsez betetako pilare, eserleku, baranda eta kartel ahaztuei. Arotzak, amama eserleku batean topatu zuen lo, baina bere pausoak ozen entzun zirenez, bulkada bakar batez tentetu zen emakumea, alde egiten saiatzeko.

–Ez minik egin atso zahar honi. Penakaz najan, penak joitunat. Beti penakaz. Izen erruki.

–Amama, neu naz, Erramun txiki.

–Penakaz najan, penakaz beti... –jarraitu zuen emakumeak, hala ere.

–Amama! Amama! Neu naz, Erramun! –Orduantxe, burua jaiki eta bere iloba ikusi zuen begien aurrean.

–Erramun txiki...hi al haiz?

–Bai, amama, neu naz. Zeu bisitatzera nator. Erregalu bat dauket zuretzat.

–Gure Erramun txiki, etxeko txikerrena. Erramun, hire ama joan jatenan esku artetik, eta gero penak eta beldurrek besterik ez zittuan egon.

–Bai, amama, badakitt. Baina amama, badauket zuretzat erregalu on bet. Jainkoak emondako erregalue ona da, edarra.

–Jainkoak? Ze Jainko? Gure Jainkoak min egiten joskuk. Gure Jainkoak ez dok begituten hona bera. Alarauke ibili nitzunan berari deike urtietan, baina ez jostenan jerarik ein. Ez jak Jainkorik, Erramun txiki. Hilik jak herri hontan. Ez Jak Jainkorik, eta ez jan ixeririk. Eta andre danak hilda dittunien, azkenien jaunak be hilko dittuk.

–Ez, amama! Hori ez da ona.

–Ez?

–Amama andrak hil? Andra guztixek hilik?

–Halan jaunak be hilik.

–Amama...amama... –Arotza, anderearen oinetan makurtu eta aurpegia laztandu zion.

–Jaunek ez dittuk onak, Erramun txiki -amamak ere, eskua luzatu eta masaila laztandu zion. -Ez zaitez nagusi egin, bixotza.

Erramunek listua irentsi eta amamari musu bat eman zion kopetan. Orduan, bere irribarre desitxuratuaz jabetuta, bertatik alde egin zuen amamak lotan jarrai zezan.

Goizaldeko lehen argi izpiekin batera begiak busti zitzaizkion arotzari. Zer egin behar zuen orain? Nor behar zuen? Norengana jo? Erreka ondoko bidea hartzea erabaki zuen, hainbat hitzek bere burua okupatzen zutela. Hainbat egiak, eta errealitate ilun askok. Zergatien itsaso sakonean, itsasoaz oroitu zen. Baso eta mendien beste aldean zegoen ur gazi hartaz. Itsasontzi eder eta handi bat irudikatu zuen bere buruan eta amaren ponte-izena zuela imajinatu zuen: “Marijane”.

Baina orduantxe, herriko azkeneko bizi aztarnak batzen ziren lekuan, neska gazte bat izarak garbitzen zegoela ohartu zen. Inoiz ikusitako izakirik erakargarriena zela iruditu zitzaion berehala. Ile luze, azal leun, masail gorri, ezpain busti. Ondo jateagatik gizendua, eta kantari, ez zuelako inor inguran. Errekako urak jantzi argia busti zionez, izterretan, gerrian, zilbor aldean itsatsi zitzaion telak. Hura bai polita.

–Andrie don. –Ahoskatu zuen altuan arotzak dardaraka. Emakumea, belarretatik altxatu eta zuzen-zuzen so egin zion gizonari.

–Zer gura dok, gizona?

–Andra gaztie zara.

–Pozten non horretaz erreparatu haizela.

–Ez neuke zu beldurtzie gure. Ez naz jaun txarra.

–Inor ez dok jaun txarra izeten inoz bez.

–Neuk egixe diñot.

–Zeren bille etorri jok.

–Laguntza bille. –Neskak, harridura keinu bat eginez, mesfidagarri begiratu zion.

–Nik ezin jotsut lagundu. Ez non laguntzeko kapaz.

–Zure etxie handixe da?

–Herriko handixena. Gizonen Jaunan etxekoa non.

–Gizonen Jaunan etxekoa? Orduen hartu zeinke nik dekotena hamen.

–Gazteak, bekainak zimurtu zituen.

–Zer dok.

–Ezin dot nik jagon. –erantsi zuen Erramunek nekatuta.

–Jagon?

–Jaixo barri bet da. –Arotzak, orduan, gau osoan zehar gorputzari helduta zeramana erakutsi zion. Jaio berri-berri bat – Jainkoak emondako neskatxu bet da.

–Nik ezin junat eroan etxera.

–Zergatik ez? Andrak onak die. Zu ona zara.

–Jaun batek bez ez najon ezetuten. Hik are gitxiago. –Erramunek begirada jaitsi zuen. –Etxera eroan? Zetako? Onak dittun andriek, ezta? Baina zein jaun zintzo junau guk ondoan? Zein on? Andrak preziatuek gaittun. Desiratuek, bai, erreklamatuak izeten gaittun. Ez gaittun libreak. – Neskak tristuraz begiratu zion, orduan. –Ezin junat haurtxo errugabe hori etxera eroan, gizona. Bizi miserable batera kondenauko najauken.

Momentu hartan, haiek sortutako mikrokosmos txiki hartatik erauziz, beste jaun batzuen oihuak entzun zituzten.

–Maddalen, Maddalen! Urrundu beragandik! –Neskaren etxeko hiru jaun ziren. –Ez hurreratu geixau, kabroie!

Maddalenek begiak gustiz zabaldu zituen eta bertatik alde egiteko keinua egin zion larritasun aurpegiarekin. Orduan, haietako batek, eskopeta sorbaldan estutu zuen eta tiroka hasi zen. Arotzak, birritan pentsatu gabe, buelta eman eta korrika abiatu zen basorantz. Umea, momentuan iratzarri zen eta mugimendu zakarrak izututa, negarrari eman zion.

Basoan, lasaitzea lortu zuenean, gure arotzak neskatilatxua besoetan hartu eta adi-adi so egin zion.

–Zer egin bihar juat nik orain? Ni ez nok duinekoa. -Erramunek, orduan, musu goxo bat eman zion haurtxoari eta zera esan zion: “Baina nigaz geratu bihar bazara, neurie zarela esan gure dau? Neurie zara?”

Ganbarako mapa

Mari Joxe Azurtza Sorrondagi

Gorpuari begiratu nion eta egoera horretan burura zetorkidan esaera etorri zitzaidan beste behin: “Honek ere izango dik negar egingo dionik, Liher”. Hasperen egin nuen. Galtzarbetik olio santua atera eta azken igurtzia eman nion, Jainkoak haren altzoan onar zezan otoitz eginez. Begietan zein kopetan gurutzearen seinalea egin eta une batez alboan eseri nintzaion nire gogoetetan, “beste bat zeruratu zaiguk, beste gajo bat hil zaiguk”, hori baitzen nire ondorioa heriotzaren aurrean, azkenean, berez-berez gizajo hutsak garela gizakiok, ezer gutxi, bizi garen bitartean norbait garela uste izanagatik. “Izarren hautsetatik eratorriak gara eta berriz atzera, gure etxera goaz, naturara, Jainkoaren magalera”, horrelakoxea zen nire leloa. Aitaren egin eta galtzarpean sartu nuen olio santua, patrikan estola eta lepotik gerrian lotuta nuen zorroan zapia. Zuritu, arropak lisatu, uniformearen kapela jantzi eta herriko udaltzain-etxera jo nuen. Ardipe herriko udaltzaina nintzen ni eta aldi berean, bertako diakonoa, apaizaren faltan. Bataioak, elizako ezkontzak, gaixoen igurtziak eta mezarik ezean asteroko eliz-ospakizuna -edo tartekako hileta elizkizunak ere- nire esku zeuden, baina baita herriko gertakarien ikerketak ere udaltzain buru nintzenez. Beno, herriko udaltzaina zein udaltzain burua nintzen ni, bi eginkizunak bat zirelako bostehun biztanleko herrian.

Mugikorrean eposta heldu zitzaidala igarri nuen dardarari esker. Bidean estropezu ez egitearren gelditu eta laneko kontura iritsitako mezua irakurri nuen. “Europolek zurekin hitz egin nahi du gaur Ardipen hil den andrearen inguruan. Dei iezadazu 945111111 zenbakira. Adeitsuki, Agurtzane Garaioa ertzain burua, Lakua”. Zurrun gelditu nintzen, begiak zabal-zabal, ia ezin arnas hartu. Begiak itxi berri nizekion andreari buruz ari ote zen Garaioa ertzain burua? Zein harrigarria nahiz irrigarria zen Europolek Ardipeko gertakari bati buruzko galdeketari ekitea. Forentseak amaitua izango zuen andre haren heriotzari zegokion txostena eta ohikoaz gaindiko ezer topatuko al zuen? Udaltzaingoan, bulegoan, Garaioa ertzain buruari lasaiago deituko niola erabaki eta mugikorra poltsikoan jaso nuen. Hau ere banuen! “Hamaika ikusteko jaio gaituk gero! Argi zegok”, bota nuen eguratsean lurruna. Egun hotza genuen.

Bulegoko besaulkian eseri eta erregaliz-edabe hotzari zurruta eman nion. Suspertu egin ninduen. Agurtzane Garaioari deitu nion segidan, baina Europolaren kontua argi ziezadan eskatuagatik, nire ezusterako, telefonoz ezin zuela horretaz hitz egin eta bera zein Europoleko bi agente Ardipen agertuko zirela, handik bi ordutara, besterik ez zidan aipatu. “Kontxo, ez zegok batere gaizki, Liher, ezagun bilakatzen ari haiz” iseka egin nion nire buruari.

Baikor sentitu nahi banuen ere, izu arinak bereganatu zuen nire gihar-hezurdura, ez nengoelako hartara ohitua eta sentsazio ezatsegin horri aurre egitearren, aspaldian kenduta izan beharko nituzkeen horma eta ateetako iragarkiak zein oharrak kentzeri lotu nintzaion. Okupatua egon beharra nuen.

“Hemen gara, Sorrondegi udaltzain jauna, Pierre Craft eta Sara

Larrebehere agenteak eta neroni”. “Agurtzane? Barkatu, esan nahi nuen, Garaioa andrea zara?” esanez, asaldatuta luzatu nion eskua sartu berri zen kalez jantzitako andreari. Hitzeman baino ordu erdi lehenago nituen herriko udaltzain-etxean, horregatik nire aztoramena. “Bai, neu naiz, baina dei iezadazu Agurtzane bakarrik, Liher”. Buruarekin baietz egin nion. Europoleko bikotea ere agurtu nuen eskua luzatuz, “Ongi etorri, Ardipera. Eta? Zerk zakartzate hona?”. Urduritasunak ninderaman haiek Ardipen izatearen arrazoiaren muina zein zen berehala jakin nahira. Arnas sakon hartu nuen, urduritasuna ez baita inoiz kide ona. “Ezagutu al duzu gaur hilotz agertu den andrea?” galdetu zidan Agurtzanek labur eta zuzen. “Ez, ez zen herrikoa. Done Jakue bidea egiten ari zen norbait zela uste dut. Motxila eta lo zakua zituen aldamenean”. “Ba ez, Liher, herrikoa zen, baina aspaldi desagertu antzean ibilitakoa eta orain, sorterrira, bakea eta askatasuna berreskuratzerantz etorria zen.”

Ni Ardipen jaiotakoa nintzen eta gurasoak ere hangoak nituen. Nolatan ez nuen andre hura ezagutu? Horretaz gain, diakono izateak etxe-atari ugari ireki zizkidan azken urteotan eta ez nuen goizeko andrearen berri sekula izan.

“Nor zen?” galdetu nion nire burutazioak alboratuz. Hobe nuen informazioa agudo eskuratu, baina orduan ohartu nintzen ez niela ezer eskaini, ezta esertzeko ere! Urduritasuna lagun petrala nuen. “Barkatu, eser gaitezen mahai honen inguruan eta edateko kamamila ala erregaliza eskaini besterik ezin dizuet”. Mahaiaren inguruan jesarri eta edontzi bana ur eskatu zidaten, eztarria bustitzeko. “Kutixi gutxikoak dizkiat! Horrela, errazago” pentsatu nuen nire golkorako.

“Liher, irakur ezazu dokumentu hau”. Agurtzanek orri batzuk jarri

zizkidan aurpegi aurrean. Eskutan hartu nituen. Paperok ziotenaren arabera hildakoa Goiuri Troski Agirrezabala zen, Ardipeko Muñotxabal baserriko alaba. Haren aita eta ama ezkonduak egon ziren hil artean, baina bata Errusian URSS garaian eta bestea baserrian, beti berezituak, uda aldean ezik. Orduan, Carmen -Goiuriren ama- Helsinkira joaten zen eta bertan Igor Troskirekin bi aste pasatzen zituen, hotel batean. Nahiz eta hura zuten aurrez-aurreko urteroko harreman apurra, bai batak, bai besteak, ez zuen maitalerik izan. Goiurik haren aita ezagutzerako bazituen hamasei urte, Helsinkira amarekin joan zen lehen aldian ezagutu zuen eta handik bi urtetara, URSSean sartu eta haren ibilbidea ezezaguna izan zen Europolek haren berri izan zuen arte. Goiuri Gorbachoven itzultzailea izan zen -espainiera, frantsesa, alemana eta ingelesean aritzen zen- Perestroika garaian, URSS desintegratzeko bidean zen urteetan, 1986tik, 1991ra. Berak itzultzaile lanetan jardun zuen hogeitun urte zituenetik hogeita bost urte arte.

Gorbachovek antolatutako jai batean Vladimir Katchenko ezagutu –Errusiako petrolio-handimandi bat–, harekin txoratu eta hogeita bost urterekin ezkondu zen, itzultzaile lana utziz. Ez zuten haurrik izatea lortu.

Aldi berean, senarraren familia mafiarekin hasi zen hartu emanetan, baina Vladimirrek ez zuen mafiarekin nahastu nahi izan eta hala, tirabira horietan murgilduak zeudenean, bai Vladimir, bai bere anaia Boris hilda agertu ziren asteburua naturan igarotzera joan ziren batean. Hotzak hil zirela bazirudien ere, autopsiak pozoiz aztarnak azaleratu zituen eta hau jakin eta berehala, Goiurik bere ondasunak Errusiako ilobei eman eta Ardipera itzuli zen. Ardipera babes bila etorri zela dirudi.

“Bai, babes bila etorri eta heriotzaren segarekin topo egin din” esan nuen,

ahozkora esan nuenik ohartu gabe. Eztul egin zuen Agurtzanek eta bekainak okertu zituela ikusi nuen burua altxatu nuenean, Pierre eta Sara zirkinik egiteke nekusatzan bitartean. “Barkatu, kontakizunean barneratu naiz eta ihes egin dit iruzkinak”. Burua makurtu nuen berriz eta amaiera arte irakurtzen jarraitu nuen.

Goiurik mafiaren gorabeheraren bat zekiela uste zuen Europolek eta heriotza ez zela ezbeharra izan, apropos egindakoa baizik. Urdaila bihurritu zidan azken esaldi horrek. Paperak mahaigainean utzi eta ironia kutsuarekin, sinestezin, galdetu nion Agurtzaneri “Baina hau zer da, pelikula baten gidoia?”. Ardipen halako korapilorik eduki genezakeenik ez nuen sinistu nahi, gure oreka eta mundua ulertzeko era goitik behera aldatzen zuelako irakurritakoak. Gure herria, herri xalo eta lasaia zen eta irakurritakoa beste unibertso bateko kontakizuna zen.

Agurtzanek ez zuen txintik esan. Begietara begiratu zidan bakarrik eta isilean iraun zuen. Nire ernegua ez zuen erdeinutzat hartu, bestela baizik, ni ere udaltzaina nintzela jakitun zela eta nik ere, hark bezala, hori dena egia borobila zela banekiela onartzeko denbora eman nahi izan zidala ulertu nuen. Eskuak izterretan lehortu eta bihotzaren taupadak entzun nitzakeen belarrietan. Galdetu ez nuen galdera askatu nuen.

“Norbaitek hil al du goizeko andrea?”. “Bai, garondoan kolpe txiki baina zehatza eman diote eta ziztada baten bidez heriotza bidean utzi dute bide bazterrean”. Zezenei zezenketa amaieran, mingaina kanpoan dutela daudenean, garondoan sartzen dieten ezpata txikia etorri zitzaidan gogora. Andre gaixoa, bake bila etorri eta amaiera aurkitu zuen Ardipen. “Jauna, zergatik gara horren makur eta kaskarrak?” ahopez zerura egindako galdera nuen otoitz. Malko irristari batzuk lagun nituen masailetan behera.

“Bisitari eran kamuflatu den mafiakoren batek hil duela dugu aierua. Susmagarria den nehor ikusi duzue egunotan? Herrikoa ez dena, erran nahi dugu”. Sara mintzatu zen. Nire oroitzapenetan barna ibiltzeko begiak bildu nituen. Azken asteko oroitzapenen errepassoa egin nuen eta lehen pasadan, ez zitzaidan inor etorri burura. Begiak estutu nituen, keinu horrek sakonago gogoratzen lagunduko zidalakoan. Eta ni bai fidagaitza! Lagundu baino, pertsona bat ekarri zidan oroimeneko lehen lerrora, gazteleraz arraro egiten zuen zaldi tratantea.

“Duela bost egun ferria izan genuen eta udaltzain gisa, bertan izan nintzen antolaketan laguntzen. Tratulariak ezagunak ditugu eta datozen berriak, etxeko lanpostuari heldu dioten gazteak izan ohi dira. Urte gutxiren buruan ezagun bilakatzen dira denontzat. Baina aurten, lekutik kanpora zirudien gizon bat ezagutu dugu, azentu berezia zuen eta berak Bulgariakoa zela zioen. Bazekien zaldiei buruz baina ezer ere ez zaldi-tratuari buruz. Hasiberria zela sinistarazi genion geure buruei eta bere kasa utzi genuen. Halere, herriko batek ez ziola tankera onik hartu aitortu zidan larrituta: bera sendagilea zela eta gizon hark zituen bisturi eta erremintak kirofanoetakoak zirela, ebaketak eta zulaketak xuxen-xuxen egiteko erabiltzen zirenak, txit garestiak. Medicus Mundirekin izan zen hiru urtetan haren kirako jendea ikusi zuela, hura bezala mugitzen zena oinez, begiradan... ordainpeko segurtasun pertsonak zirela, nola esan, erruki gutxiko hiltzaileak. Ez nion jaramonik egin Koxmeri, beti baitabil hau eta beste kontari, baina arrazoi zuen. Zein inozoa izan nintzen haren hitza arbuiatuz”.

Mahaiari ukabilkada arina eman nion. Kontxales!

“Ba al duzue haren argazkirik?” galdetu zuen Agurtzanek. “Berea ez dakit,

baina feriakoak bai, ea non ditugun gordeak. Alkateak jakin dezake”. Izaskuni deitu nion, alkate andreari eta zirt-zart erakutsi zidan non zeuden gordeta ateratako argazkiak.

“Liher, hemen daude denak, moldatuko zara?” esan zidan. “Bai, zoaz lasai” erantzun nion, ama ospitalean izana zuen astebetetz eta alta eman berri ziotela hots egin ziotenez, hara zihoan amaren bila.

Argazkiak banan-bana pasatzeari ekin nion. Bosgarrenean, ordea, Pierrek besoa heldu eta “stop” esan zuen. Hirurek burua gerturatu zuten ordenagailu pantailara eta sinkronizatuak baleude bezala buruarekin baietz esan eta aurkitu nahi zutena hor zegoela adostu zuten.

“Zuekin izan da. Yuri Romanov, bila gabiltzanetako bat da, hiltzaile profesionala da. Ez genekien honaino zabaldu zutenik haien hilketa eremua. Horrek larritzen gaitu”. Sarak betilun hitz egin zuen. “Eta Goiurik bere soinean ba al zuen koadernorik edo?” galdetu zidan Agurtzanek.

Nik diakono bezala azken igurtzia eman nion, baina forentseak egin zuen gorpuaren azterketa eta epaileak agindu zuen eremuaren ikerketa. Ez nuen udaltzain gisa ikusi goizean Goiuri, Jainkoaren seme-alaba bezala baizik. Damutzen nintzen udaltzain lana ez hobeto egin izanaz, baina hura epaileari utzi nion. Eta bat batean gogoratu nuen.

“Herriko makil bat zeraman eta harritu egin banau ere, Done Jakue biderako herriko norbaitek oparituko ziola pentsatu dut nik. Baina bera Muñotxabaleko alaba baldin bazen, makil hori berea zela argi dut orain. Ardipen ohitura bat dugu: seme-alabei euskal-makil bana oparitzen diegu gurasook jaio berritan. Bertan, gurasoen abizenen armariak margotzen dizkiegu, baserriko ikurren bat eta ganbarako zein aldetan ditugun etxeko

bitxiak gordeta. Hots, ganbarako mapa baten antzekoa da marrazkietako bat. Bitxiak ez dira beti balio handiko harriak izaten, baizik aspaldiko tresnaren bat izan liteke, edo lur jabetza agiriak edota argitara ezin daitezkeen koaderno eta eskuizkribuak. Auzokoen arteko liskarretarako erabil litezkeen dokumentuak izan ohi dira maiz. Makil hori da giltzarria, ziur naiz, har dezagun! Muñotxabal baserriko ganbararen mapak erakutsiko du bila zabilzaten ezer, argi dut”.

Haiei hitza emateke telefonoa eskegi eta epaileari deitu nion, makila non jaso zuten galdetzeko. Epaileak hiriko ertzaintzaren komisaldegian zegoela eta zer behar nuen galdegin zidan nire larritasuna nabaritutakoan. Azalpenik eman gabe, makil horren eskulekuan agertzen zen marrazkiari argazki bat atera eta mugikorrera bidaltzeko eska ziezaiekeen galdetu nion, buruan intuizio bat nuela eta Muñotxabalera joan behar nuela eta azalduko niola ondoren, intuizioak emaitzarik ematen bazuen.

Deia amaitu eta denborarik galtzeke jaiki egin nintzen “Muñotxabalera goazen! Argazkia mugikorrean jasoko dut aurki eta ordurako baserrian izatea lagungarria gerta dakiguke”. Nirekin jaiki ziren Agurtzane, Sara eta Pierre ere, eta hogeit hamar minutu barru baserriko ganbaran ginen laurok. Sabaian kable zuztar batetik kolokan zegoen argia piztu nuenean jaso nuen mezua mugikorrean: argazkia zen eta bertan argi ikusi nuen mapa. “Badakit non den” esan nien beste hirurei entregatuz mugikorra eta zutabe baten goialdean izkinan zegoen habia mugitu nuen. Azpialdean kutxa bat zegoen, “Hara! Hemen da etxeko altxorra”.

“Itxoin, utziguzu guri” eskatu zidan Agurtzanek. Gogo onez utzi nion kutxa eta ezustean pistola atera zidan. “Hi bai hi inozoa, Liher. Zure udaltzain etxean agertu gara eta ez diguzu agiririk eskatu nor ginen

jakiteko”.

Hura bai hasiberriaren hanka sartzea egin nuen. Nor arraio ote zen hirukote hori? Besoak lepagainean nituela nire amorrazioari eutsi nion, baina ni nintzen koitadu bakarra hor. Otoitz laburra egin nuen, inoiz ez bezalakoa, barru-barrukoa “Jauna, har nazazu zure altzoan” eta orduan miraria gertatu zen!

Eskaileretatik gora eta sabaietako bi ertzetatik ertzainek jauzi egin zuten ganbarara eta nire aurrean zegoen hirukotea lurrera bota zuen, begia itxi-irekin baino lehen. “Lasai, Liher, zure emazteak, hau da, epaileak eman digu zure deiaren berri eta ez dio susmo onik hartu zure hitz egiteko erari eta hiru patruila etortzeko agindu du”.

Ai, emaztea xarmanta! Zer egingo nukeen bera gabe. Irribarre egin nuen.

Kutxa ireki zuen nire aurrean ertzain arduradunak eta bertan ikusi genituen lau orri berri, izen zerrenda bat zekartenak. “Izen hauek izango dituk Goiuri erahiltzeko arrazoia” argudiatu nuen eta hala izan zen.

“Liher, amona ez diagu ondo, etxera etorriko hintzateke kontsolazio hitz batzuk ematera?” eskatu zidan leihotik herritar batek. Diakono zorroa nirekin nuen eta ertzain andanaren aurrean nire burua desenkusatu ondoren, nire beste zereginera joan nintzen, talde hura ahoa bete hortz utzita. “Baina hemengoa argitu dugu, ezta?” bota nien eskailera behera lotsa gutxirekin. Baina nire betebeharrera nindoan une horretan ere.

Zer eguna! Zer eguna! Amona horri kontatzeko pelikula banuen!



BRUMA NEGRA

LANBRO BELTZA

Plentzia Beltza

Calibre .38

